



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

2019KO EKAINAREN 13KO OSOKO BILKURAREN ERABAKIAK

1. (deialdiko alde aurreko gaia) Behin betiko ebaztea ekainaren 6ko osoko bilkurako bozketan izandako berdinketak, Erregelamenduaren 92.1 artikulua adierazitakoari jarraituz, EH Bildu talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamenari dagokionez, kontziliazio eta erantzunkidetasun politika berriak zehaztuko dituen lau urterako plan berezitu bat Legebiltzarrera ekartzeari buruz. [11\11\02\01\00539]

Ezetsia.

ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO EL DÍA 13 DE JUNIO DE 2019

1. (asunto previo de la convocatoria) Resolución definitiva de los empates ocurridos en las votaciones del pleno celebrado el día 6 de junio, de acuerdo con el artículo 92.1 del Reglamento, en relación con la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, sobre la remisión al Parlamento de un plan específico para cuatro años que defina nuevas políticas de conciliación y corresponsabilidad. [11\11\02\01\00539]

Rechazada.





2. (deialdiko 1. puntua) Elkarrekin Podemos talde parlamentarioak egindako lege-proposamena, Euskadiko ondasun komunaren aurkako lege-haustek, zuzenbide-gehiegikeriak eta praktika desegokiak jakinarazten dituztenak babesteari buruz. Aintzat hartzeari buruzko eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\09\02\02\00029]

Aintzat hartzea ezetsi egin da.

2. (punto 1 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva en relación con la toma en consideración de la proposición de ley formulada por el grupo parlamentario Elkarrekin Podemos, relativa a la protección a las personas que alerten de infracciones legales, abusos de derecho y malas prácticas contra el bien común en Euskadi. [11\09\02\02\00029]

Rechazada la toma en consideración.





3. (deialdiko 2. puntua) Mozioa, Carmelo Barrio Baroja Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak aurkeztua, Euskadiko osasun publikoak osasun-teknologian inbertitzeko jasotzen dituen dohaintzei buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\03\00\00136]

EA-NV, SV-ES eta PV-ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

19/2019

- "1. Eusko Legebiltzarrak aitortu eta eskertu egiten ditu minbiziaren aurkako borrokan aurrera egiten jarraitzeko helburu komunean kolaboratzea erabakitzen duten pertsonen eta eragileen konpromisoa eta ahalegina.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatzen dio ezen, indarrean dauden Euskadiko Osasun Planean eta Onkologia Planean jasotakoa betez, jarrai dezala garatzen hartutako konpromisoak eta ezarritako lan ildoak, Euskadiko Autonomia Erkidegoan arreta onkologiko onena eman ahal izateko".

3. (punto 2 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D. Carmelo Barrio Baroja, parlamentario del grupo Popular Vasco, relativa a las donaciones que recibe la sanidad pública vasca para inversiones en tecnología sanitaria. [11\11\03\00\00136]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, SV-ES y PV-ETP.

19/2019

- "1. El Parlamento Vasco reconoce y agradece el compromiso y el esfuerzo de todas aquellas personas y entidades que deciden colaborar con el objetivo común de seguir avanzando en la lucha contra el cáncer.
2. El Parlamento Vasco insta al Departamento de Salud del Gobierno Vasco a que, en cumplimiento de lo recogido en el Plan de Salud y el Plan Oncológico de Euskadi vigentes, siga desarrollando los compromisos adquiridos y las líneas de trabajo establecidas al objeto de poder dar la mejor atención oncológica en la Comunidad Autónoma de Euskadi".





4. (deialdiko 3. puntua) EH Bildu talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, gazte prekaritatearen kontrako talka plan berria indarrean jartzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00525]

EH Bildu eta EP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketaren bozketan berdinketa izanda, hurrengo osoko bilkuran erabakiko da.

4. (punto 3 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, sobre la puesta en marcha de un nuevo plan de choque contra la precariedad juvenil. [11\11\02\01\00525]

Producido empate en la votación de la enmienda transaccional suscrita por los grupos EH Bildu y EP, queda pendiente para una próxima sesión plenaria.





5. (deialdiko 6. puntua) Mozioa, Javier Ruiz de Arbulo Cerio Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak aurkeztua, Ertzaintzaren ibilgailuak berritzeari buruz. Eztatanda eta behin betiko ebazpena. [11\11\03\00\00134]

EA-NV, SV-ES eta PV-ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

20/2019

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. Lan Arriskuak Prebenitzeko eta Lan eta Gizarte Segurantzaren Sistema Arautzeko araudian aurreikusitakoarekin bat, bete ditzala Bizkaiko Lan Ikuskaritzak Segurtasun Sailari egindako errekerimenduak, berriki erositako Seat León ibilgailuei dagokienez.
2. Lan Ikuskaritzak egindako behin betiko errekerimenduak ezarritako epean, Eusko Legebiltzarrari igorri diezaiola txosten zehatz bat hartutako neurri prebentibo teknikoei eta antolakuntzakoei buruz, langileen esku jarritako Seat León ibilgailuek beren segurtasunarentzat eta osasunarentzat arrisku bat izan ez daitezen hartzeko egoki eta bideragarri direnei buruz".

5. (punto 6 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D. Javier Ruiz de Arbulo Cerio, parlamentario del grupo Popular Vasco, relativa a renovación de la flota de vehículos de la Ertzaintza. [11\11\03\00\00134]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, SV-ES y PV-ETP.

20/2019

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que:

1. De conformidad con las previsiones de la normativa de Prevención de Riesgos Laborales y la Ordenadora del Sistema de Trabajo y Seguridad Social, dé cumplimiento a los requerimientos realizados al Departamento de Seguridad por parte de la Inspección de Trabajo de Bizkaia, en relación con los vehículos Seat León adquiridos recientemente.
2. En el plazo determinado por el requerimiento definitivo realizado por la Inspección de Trabajo, remita al Parlamento Vasco informe exhaustivo sobre las medidas preventivas técnicas y organizativas adoptadas que resulten procedentes y viables para garantizar que los vehículos Seat León puestos a disposición del personal no supongan un riesgo para su seguridad y salud".





6. (deialdiko 5. puntua) Elkarrekin Podemos talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, Euskadiko udalerrri guztietako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz. Eztatanda eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00577]

EA-NV, EH Bildu, EP, SV-ES eta PV-ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenka onetsi da.

63/2019

- "1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio EAEko toki-erakundeak babes ditzala entitate horiek tresna zehatzak bultzatzen berdintasuna modu eraginkorren eta egiazkoan lortzeko; esaterako, berdintasun-teknikarien taldeak ezarrita, erreferentziazko egiturak sortuta eta udalerriei babes- eta laguntza-programak emanda berdintasun-planak eta udal-ordenantzak era ditzaten. 2020ko aurrekontuetarako Gobernuak generoaren ikuspegitik planteatzen dituen jarraibideei dagokienez, Euskadiko udalerrri guztiei laguntza tekniko eskuratzen dieten politika publikoak aztertuko dira, berdintasunerako politika espezifikoetan inbertsioak handitzeko xedez eta beren aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko xedez.
2. Eusko Legebiltzarrak baikortzat jotzen du udalek duten zeregina berdintasunerako organoak indartzeko orduan, baita zuzenean erakunde bakoitzeko agintari gorenaren menpean egotea eta, orobat, behar diren baliabideak izatea ere; orobat, emakume-kontseiluak nahiz berdintasun-kontseiluak eratzea udalerrietan, erakundeen eta herritarren arteko harremanak lantzeko asmoz berdintasun-politiken alorreko gaietan eta akordioetara iristeko asmoz. Alde horretatik, parte hartzeko deia egingo zaie udalerrietako talde feministei, emakume-elkarteei nahiz interesdunei.
3. Eusko Legebiltzarrak eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari era ditzala araudi orokor batzuk Eudelekin eta aldundiekin batera,

6. (punto 5 de la convocatoria). Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Elkarrekin Podemos, relativa a la igualdad de mujeres y hombres en todos los municipios de Euskadi. [11\11\02\01\00577]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, EH Bildu, EP, SV-ES y PV-ETP.

63/2019

- "1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a dar apoyo a las entidades locales de la CAPV para que impulsen los instrumentos precisos para la consecución de una igualdad efectiva y real, como el establecimiento de cuerpos técnicos de igualdad o estructuras de referencia, programas de apoyo y acompañamiento a los municipios para la elaboración de planes de igualdad y ordenanzas municipales de igualdad. En el marco de la presupuestación con enfoque de género que plantean las directrices del Ejecutivo para el presupuesto de 2020, se analizarán las políticas públicas que tiendan a facilitar asistencia técnica a todos los municipios de Euskadi a fin de que incrementen sus inversiones en políticas específicas de igualdad y de que integren la perspectiva de género en la elaboración de sus presupuestos.
2. El Parlamento Vasco valora positivamente el papel de los ayuntamientos para reforzar los órganos para la igualdad y que en la medida de lo posible tengan una dependencia directa de la máxima autoridad de cada institución, así como recursos adecuados, e, igualmente, la creación de consejos de mujeres o consejos de igualdad en los municipios como espacios para abordar las relaciones entre la institución y la ciudadanía en cuestiones referentes a políticas de igualdad y llegar a acuerdos. Para ello se invitará a participar tanto a los grupos feministas del municipio como a asociaciones de mujeres, o a personas interesadas.
3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a elaborar junto con Eudel y diputaciones, y a consensuar, unas directrices generales en





berdintasun-unitateen inguruan, haien funtzioak eta jarrera indartzeko erakundeetan, eta baliabide gehiago jartzeko, gaur egun berdintasunaren alorrean tokiko erakundeetan dauden egituren, ereduen eta baliabideen heterogeneotasunari buelta emateko –izan ere, Berdintasunaren VII. Planean ahulgune gisa ageri da berdintasun-politikei bultzada emateko orduan– eta Legebiltzarrean sei hilabeteko epean, gehienez, aurkez ditzala.

4. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bete ditzala legealdi honetan genero-indarkeriaren inguruan onarturik diren akordioak eta Erkidegoko Ganberara igo dezala arau-proposamen bat emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko behar diren neurriekin.
5. Eusko Legebiltzarrak eskatzen die Eusko Jaurlaritzari eta gainerako erakundeei indar ditzatela genero-indarkeriaren biktima izan direnak babesteko programak, zehazki, sentsibilizazioaren, prebentzioaren, arretaren eta babesaren arloan, orobat protokoloak berrikusi eta hobetu ditzatela arreta lasterra, eraginkorra eta osoa emateko".

torno a las unidades de igualdad con el fin de reforzar sus funciones, su posición en las diferentes instituciones y sus recursos, de manera que se revierta la heterogeneidad actual de las estructuras, modelos y recursos para la igualdad que existe en las instituciones locales, ya que en el VII Plan de Igualdad se identifica como una debilidad para el impulso de políticas de igualdad, y a presentarlas en el Parlamento en el plazo máximo de seis meses.

4. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a dar cumplimiento a los diversos acuerdos aprobados en relación con la violencia de género en la presente legislatura y a remitir a la Cámara autonómica la propuesta normativa comprometida para regular las medidas necesarias para erradicar la violencia contra las mujeres.
5. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco y al resto de instituciones a reforzar los programas de apoyo a las víctimas de violencia de género en los ámbitos concretos de sensibilización, prevención, atención y protección, así como a revisar y mejorar los protocolos con el objeto de proporcionar una atención rápida, eficiente e integral".





7. (deialdiko 4. puntua) EH Bildu talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, EITBko albistegietan karrera profesionala bermatzeko konpromisoa betetzearen inguruan. Eztatanda eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00477]

EA-NV, EH Bildu, EP eta SV-ES taldeek hitzartutako erdibideko zuzenka onetsi da.

64/2019

- "1. Legebiltzarrak EITBko zuzendaritzari eskatzen dio txosten zehatz bat bidal diezaiela lehenbailehen talde parlamentarioei. Txosten horrek jasoko ditu EITBko zuzendaritzak hartu dituen neurriak, bertako langileen ordezkari sindikalekin adostutakoak, albistegien independentzia eta pluraltasuna bermatzeko eta erredaktoreen karrera profesionala sustatzeko, bai eta neurri horien betetze-maila eta lortutako emaitzak ere, Legebiltzar honek 2018ko maiatzaren 31n 11\11\02\01\00218 espedientea duen legez besteko proposamenean emandako agindua beteaz.
2. Legebiltzarrak eskatzen du EITBko zuzendari nagusia EITBren Kontrol Batzordean agertzea datorren urria baino lehenago, zuzendaritzak garatutako planteamendua taldeei zehaztasun osoz azaltzeko".

7. (punto 4 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, sobre el cumplimiento del compromiso para garantizar la carrera profesional en los informativos de EITB. [11\11\02\01\00477]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, EH Bildu, EP y SV-ES.

64/2019

- "1. El Parlamento insta a la dirección de EITB a enviar a los grupos parlamentarios, a la mayor brevedad posible, un informe detallado que recoja las actuaciones llevadas a cabo por la dirección de EITB, consensuadas con la representación sindical de las y los trabajadores, para garantizar la independencia y pluralidad de los informativos y fomentar la carrera profesional del personal redactor, así como el grado de cumplimiento de las mismas y los resultados obtenidos, cumpliendo así el mandato de este Parlamento del 31 de mayo de 2018 en la proposición no de ley con expediente 11\11\02\01\00218.
2. El Parlamento solicita la comparecencia de la directora general de EITB en la Comisión de Control de EITB antes del mes de octubre del presente año para explicar a los grupos de manera minuciosa el planteamiento desarrollado por la dirección".

